


VI.URTEA 1.586.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



TOLOSA Atzo egin zuten Kirolari Onenen Gala Leidor aretoan; bigarren nesken arraun taldea izan zen, eta hirugarren Joseba Rojo 2



TOLOSA Migel Anjel Azkarate 'Petas' musikariari laguntzeko bazkaria egin zuten Zerkausian 7

ABDOULAYE GUEYE
ZUZENBIDE AHOLKULARIA

«Inoizko
egoerarik zailena
bizi dugu
krisiarengatik»

TOLOSA Gaur solasaldia izango da, etorkinen legezko egoerak argitu asmoz **2**


Leire Zubeldiak idatzitako ipuina aurkeztuko dute gaur, Liburuaren Astean

ZIZURKIL 'Atxulondoko azken olagizona' ipuin kontaketa saio batekin kontatuko dute **3**

90x1 tarifa berria. Ordaindu minutu bat, eta hitz egin 90 minutuz!

Edozein ordutan eta edozein operadorearekin

Kontratatu oxain, eta eskuratu mugikor hauetako bari



Nokia 7610
Very small.
See other side for more

15€

"Dziedo etakargaria
eta koloreo berrua"



San Francisco 29, Telosa
89-943 608 126

Baroness of Offenburg





Bertso eskolari buruz hitz egiteko bilera egingo dute gaur, lurren

Tolosa » Bertso eskola ikastetxeetara eramatea erabaki dute; helduen bertso eskola ere jarri nahi dute abian urtariletik.

ERREDAKZIOA

Seigarren urtez ari dira aurtun Tolosako ikastetxeetan *Ahozotasuna* eta *Bertsolaritza* proiektua lantzen. Ikasle, irakasle eta ikastetxeen aldetik «oso harrera» ona izan du proiektuak, eta irakasleen arabera ari da bere emaitzak ematen. Hala, bertsolaritzaren inguruan herrian egin nahi diren proiektuen inguruan hitz egin asmoz, bihar bilerara deitu dute antolatzaileek. Turre elkartearen izango da, 19:00etan.

Proiektua martxan dagoen beste herri gehienetan bertso eskolak sortu direla diote bultzatzaileek. «Lehen martxan zeudenetan ikasle kopurua hazi egin da. Baina, Tolosaren kasuan, oraindik ez dugu lortu bertso eskola martxan jartzea. Saiakera batzuk egin ditugu eta oso zaila da, gaur egungo ikaslearen agendak tarteko, astean egun eta ordu jakin batean dozena bat ikasle bertsotarako elkartzea».

Hori ikusita bertso eskola eskolara eramatea erabaki dute. Hau da Tolosako hiru ikastetxeetan jarriko dituzte bertso eskolak. Eskaintza 5. eta 6. mailako ikasleei eta DBHko 1,2,3 eta 4. maileri egingo diete. Bertso eskola astean behin izango da, eguerditan eta ikasleek erabakitzen duten egun eta orduan. Horrekin batera, helduen bertso eskola edo «hori baino gehiago bertsozaleen bilerak egiten hasiko gara urtariletik aurrera, bertso ikastaroak, hitzaldiak, bertso-afariak eta bestelako ekitaldiak antolatzen hasteko».

Ahalik eta gehien zabalduz

Tolosa eta Tolosaldeko elkarre batzuek interes handia dutela proiektuan parte hartzeko diote; «orain arte guregana zuzendu diren eta gertutik ezagutzen ditugun elkarre batzuekin bakarrik jarri gara harremanetan, guztiengana ezin iritsita, baina udaberrirako elkarre guztiek proiektuaren berri izatea da helburua eta ahalik eta proiektutikide gehien biltzea». Hala, biharko hitzaldia baliatu nahi dute horretarako. Bestalde, helduen bertso eskolan parte hartu nahi dutenentzat ere, bihar, 18:30ean bilduko dira Turre elkartearen.

Xabi Alonso urteko kirolari onena

TOLOSA » Xabi Alonso futbolariak jaso zuen atzo Kirolari Onena saria. Hain zuzen ere, herriko futbolariak emandako puntuekin izan da bera saritua, 9 hautagairen artean. Bigarren nesken arrauk taldea izan zen,

eta hirugarren Joseba Rojo eskiaitzailea. Bestalde, etorkizuneko jokalarien lana —goian— ere eskertu nahi izan zuten atzoko ekitaldian, eta aipamen berezia ere jaso zutenak —behean— izan ziren. I.T.

«Krisia dela-eta inoizko egoerarik zailena bizi dugu, eta ez dirudi onera egingo duenik»

ABDOULAYE GUEYE » Caritas Gipuzkoako zuzenbide-aholkularia

Tolosa » Solasaldia izango da gaur Atzeritarren Legea eta bestelako zalantzak argitzeko, Kultur Etxean, 19:00etan.

INIGO TERRADILLOS

Etorkinaren Nazioarteko Eguna izango da bihar, eta hori dela eta, Ereite elkarrekin hainbat ekitaldi antolatu ditu aste osoan. Gaur, esaterako, solasaldi informatiboa izango da Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera, Atzeritar Legea eta beste hainbat gai buruzko zalantzak argitzeko. Abdoulaye Gueye (Senegal, 1968) Caritas Gipuzkoako zuzenbide-aholkularia izango da hizlaria.

Zein da gaurko solasaldiaren helburua?

Euskal Herrian bizi diren atzeritarren egoera legala zein den azalduko dut, hau da, erregularizazio bideak, kanporatze espedienteak... honen guztiaren inguruan ariko



HITZA

naiz lehendabizi gaurko solasaldian.

Jendeak euren egoeraren inguruan dituen zalantzei buruz galdetzeko aukera izango du, beraz? Lehen hamar minututan edo, nire sarrera egingo dut, esan bezala, egungo legeari buruz. Ondoren etorriko da parte hartzeko unea, hori baita asmoa, jendeak parte hartzea, solasaldi dinamikoa izatea nahi dugu gaurkoa, eta ez teoriari azaltzen egotea. Hala, hitzaldian parte hartzen dutenek alde-

rak egin ahalako dituzte, kontsulta publiko baten modukoa izango da. Legeak soilik ez, egoerak azaldu nahi ditugu, zerbait praktikoa eta lagungarria izan dadin nahi dugu.

Zein da zuen lana Caritasen alor honetan?

Batetik, etorkinen harrera zentroan, Laguntza Etxea delakoan, asistentzia eskaintzen dugu, janaria edota arropa bezalako lehen beharrrak asetzeko; horrez gain, aholkularitza eskaintzen da, eta kalean dagoen jendearekin ere laguntza ematen zaio. Nire kasuan, etorkinen arretarako zerbitzu juridikoaren arduradun moduan aritzen naiz. Lan kontratuak, alokairu kontratuak, nazionalitatea... bezalako edozein gai juridiko ematen ditugu.

Gaur egungo egoera nolakoa da etorkinentzat?

Oso zaila, inoiz baino zailagoa dela esango nuke. Krisia dela eta, atzeritarren diru gehien sufritzen dutenak. Izan ere, orain arte bertako-

ek nahi ez zuten lanetan egin zuten lan atzeritarrek, baina orain krisiarekin lan horiek ere hartzen dituzte bertakoek, beraz, atzeritarrek lanik gabe geratzea dakar. Horretaz gain, kontrolak geroz eta handiagoak dira gaur egun, eta kanporatze espedienteak ere ugariagoak dira.

Etorkin batek bere egoera erregulatzeko zer egin behar du?

Legearen arabera, nahikoa da lurraldean hiru urte bizi zuzena frogatzea. Baina, ez dute hori frogatzen duen edozein dokumentu aurkezten uzten, eta errola agiria aurkeztu behar da, kontuan hartuta hori zaila izaten dela kasu askotan. Horretaz gain, urte bateko lan kontratua behar da.

Aurrera begira hobetuko dela egoera uste al duzu?

Ez dut uste hori gertatuko denik, etorkizun hurbilean, behintzat. Gainera, dirudienek, urtarilean Atzeritarren Legea aldatu egingo dute, eta gauzak ikusita, ez dut uste onerako izango denik.

Hezkuntza lege berriaren aurka egiteko mobilizazioak gaur eskualdean

Hezkuntza » 11:00etan paroak egingo dira ikastetxeetan, eta 12:00etan manifestazioa deitu dute Triangulon.

ERREDAKZIOA

Eskolak Euskaldundu Herri Eki-menak deituta EAEko hainbat herri-ritan mobilizazioak izango dira gaur. Mobilizazio eta protesta egun honen zergatia, «Gasteizko parlamentuan hezkuntza lege berri baten proposamena egingo dela da, eta proposamen horren irakurketa oso atzerakoa» dela deritzo Eskolak Euskaldundu Herri Eki-menak.

Tolosaldearen kasuan, 11:00etatik aurrera paroak egongo dira eskualdeko institutu ezberdinetan (Tolosa, Ibarra, Alegi, Villabona eta Anoeta) Ikasle Abertzaleak taldeak deituta. Ondoren, 12:00tan manifestazioa egingo dute. Arratsaldean, berri, 19:00etan elkarretarazera deitu dute Tolosako Triangulon.

Kirolari lotuta hasi dira Naziotasun Jardunaldiak



VILLABONA ■ Naziotasun Jardunaldiak antolatu ditu egunotan Villabonako Bai Euskal Herriari herri ekimenak. Atzo hasi ziren Mikel Labaka Realeko jokalariek eta Egoitz Askasibar Esaiteko koordinatzaileak *Nazio bat, selekzio bat, federazio bat* izenburua zuen solasaldiarekin (ezkerrean). Hitzaldia-

ren aurretik, eskualdeko hainbat kirolarik babesia eman zioten euskal selekzioari Euskal Herria izena jartzeko alde manifestua egin zuten kirolariei (eskubian). Bihar beste hitzaldi bat izango da. Iñaki Egaña historialariak eta Mikel Luloaga Bai Euskal Herriari herri ekimeneko kideak *Euskal nortasun*

ikurrak iraganetik etorkizunera hitzaldia emango dute. Gurea aretoko erakusgelan izango da, 19:30ean. Etzi bukatuko dira Jardunaldiak. 19:30ean eta leku berdinean, *Euskal Herria euskararen herria* hitzaldia emango dute Inaxio Agirre euskalzaileak eta Igone Agirre EHEko kideak. I. GARCIA

'Atxulondoko azken olagizona' ipuina argitara

Zizurkil ■ Liburuaren Astearen baitan Leire Zubeldiak idatzitako ipuina aurkeztuko dute gaur, 18:00etan, Atxulondon.

IMANOL GARCIA

Liburuaren Astearen baitan gaur Leire Zubeldia zizurkildarrak idatzitako *Atxulondoko azken olagizona* ipuinaren aurkezpena egingo dute Atxulondo kultur etxean. Aurkezpenean ipuin kontaketa saio baten bitartez egingo da eta ipuin-kontalaria Belen Azkarate izango da. Saioa 18:00etan hasiko da.

Udaletik proposatu zioten Leire Zubeldiari ipuina idaztearena. «Herriari lotuta ez zegoela kon-



Leire Zubeldia zizurkildarra. I. GARCIA

dairik edo elezaharrik eta horrelako bat sortzeko proposatu zidan kultur teknikariak», azaltzen du Zubeldiak. Horretarako istorioa Atxulondoko burdinolan kokatu zuen. Hamabosgarren mendean Gipuzkoako garrantzitsuenaren burdinola hori. Gaur egun bere hondakinak oraindik badaude ikusgai.

Zubeldiak azaltzen duenez, «haurrei zuzendutako istorioa da, baina helduei ere interesa sor dake. Izan ere, Zizurkilgo base-riren izenak eta leku ezagunen izenak azaltzen dira bertan». Ilustrazioek garrantzia handia dute eta Zizurkilgo lekuak ilustratzaileak «oso ondo marraztu» dituela dio Zubeldiak.

Ipuinaren aurkezpenean ipuin kontaketa baten bidez egitea pentsatu zute. Izan ere, liburuan aitona batek bere bilobari Atxulondo burdinolako istorioa kontatzen dio ibilaldi bat egiten ari direla eta hori baliatuko dute gaurko aurkezpenean egiteko.

Ezohiko osoko bilkura egingo dute gaur Villabonako udaletxean

ERREDAKZIOA

Villabonako udaletxean ezohiko osoko bilkura egingo dute gaur. 20:00etan izango da eta hiru gai jarraituko dituzte. Alde batetik *Aiz-tondo bailara giza eskubide guztien alde*, *Euskal Herria* mozioa onartzeko proposamena. Bestetik, udal langileen lan ordutegiaren kontrolerako araudia onartzeko proposamena. Beste gaia Santiago Egoitzan eraikinarene eta altzarien garbiketa-mantenua, zuzeneko asistentzia (laguntza klinikoa, erizaintza...), ikuzketa, harrera eta sukaldaritza zerbitzua behin betiko esleitzeko proposamena da.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Etxeko lanak.** Emakume euskalduna behar da etxerako, astelehenetik larunbatera, 09:00etatik 15:00etara. Interesatuak deitu 650 80 19 17 zenbakira.

■ **Garbiketak.** Bigi Garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 944 604 edo 695 708 271.

KEY-LAN
Sarrailgintza
Nafarroa oteb, 13 behe - TOLOSA
Mug.: 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Aralarretik ibilaldia egingo dute igandean

Villabona ■ Aizkardikoek Betelun hasi eta bukatuko den mendi irteera antolatu dute eta besteak beste Irumugarrieta igoko dute.

ERREDAKZIOA

Aizkardiko mendi elkarteek mendi irteera antolatu dute igandean honetarako. Aralar mendilerrotik zeharkaldia egingo dute. Betelun hasi eta bukatu da ibilaldia. Guztira 20 kilometro inguru egingo dituzte eta 6 ordu iraungo ditu.

Betelun hasiko da ibilaldia eta

Gaintzara iritsiko dira (388 metro), ondoren Irumugarrietara igotzeko (1.430 metro). Zeharkaldia jarraituko dute ia alturan jaitsi gabe. Kurutzeara (1.258 metro), Pallardi (1.290 metro) eta Tuturre (1.282 metro) igaroko dituzte. Azken tontor horretatik jaitsiera hasiko dute eta Errazkin ondotik igaroko ondoren Betelun amaituko dute ibilaldia (237 metro).

Ibilaldi honetarako izena emateko azken eguna etzi da eta 943 69 44 58 telefono zenbakira deitu edo Aizkardiko egoitzara joan behar da. Irteera 07:30ean izango da Oladerra kiroldegitik ondotik.



Aralarreko hainbat gailur zeharkatuko dituzte Aizkardikoek. HITZA

Mahai tenisaren ostean, gaur eskalada

Ibarra » Mahai teniseko eskolarteko eta bigarren mailako partidak izan ziren lehen ekintzak; gaur eskalada izango da nagusi.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Kirol Astea larunbatean hasi zen Belabietako kiroldegian izandako mahai teniseko Tolosaldeko eskolarteko II. Txapelketa-rekin. Era berean, nazio mailako bigarren mailako 8. jardunaldia ere bertan jokatu zuten, zeina Usabal MT-Tolosa eta Natacion Pamplonaren artekoa izan zen.



Tolosaldeko ikastetxeen arteko ligaxkako irabazleen irudia. HITZA

Eskolarteko hasiberrien, haur eta kadete kategorien partidetan 46 ikaslek hartu zuten parte kiroldegiko kantxan prestatutako zortzi mahaietan. 7 eta 8 partaidek osaturiko taldeetan euren arteko ligaxka jokatu zuten Tolosaldeko ikasleek. Azkenean, maila bakoitzeko 8 hoberenak pasa ziren kanporaketara.

Azkenean, hasiberrien mailako mutikoen sailean Anoetako ikas-tolako Xabi Zubeldiak irabazi zion Villabonako Dr. Fleming ikastetxeko Iker Lozanori. Hirugarrena Dr. Flemingeko Unai Maiz izan zen eta laugarrena Ibarrako Uzturpe ikastolako Mikel Lekuona.

Mutiletako haur eta kadete mailetan Urnietako Egape ikastolako gazteak izan ziren onenak, finalean ikastolako Imanol Ansa eta Aitor Etxart aritu zirelarik. Partida luze baten ondoren Imanol Ansa irabazi zuen, hirugarrena Mikel Ota izan zen.

Gaur eskalada

Oraindik ere badago zeregina Belabietan Kirol Astea larunbatea arte ez da bukatuko eta.

Gaurkoan eskaladaren txanda da, izan ere, 17:30etik aurrera 10 urtetik gorako gazteek eskalada ikastaroan aritzeko aukera izango baitute.

Laburrak

Elkartasun Azoka hilaren 21a arte egongo da zabalik

BERASTEGI » Abian da jada EA21eko Ingurumen Batzordeak Berastegin antolatutako Elkartasun Azoka. Ertoetxeko lehen solairuan bisitatu daiteke hilaren 21era arte astelehenean, astearte eta ostiraletan 16:30etik 18:00etara. Asteburu honetan ere zabalduko dute azoka, gainera, goizetan izango da hori, 11:30etik 13:30era. Azokan herritarrek euren etxetan baztertuta zituzten objektuak eskuratu ahal dira; jostailuak, liburuak eta arropa erosi ahal dira, besteak beste.

Honduras, India eta Ekuador lagunduz

IBARRA » Urteroko moduan aurten ere Ibarratik Misio Taldeak ireki du Merkatu Txikia. Hilaren 21 arte izango da zabalik San Bartolome plazaren ondoan duten lokalean eta bertan jasotzen duten dirua Ekuadorreko Santa Rosa eta Baba herrietan, zein Indian eta Hondurasen dituzten proiektu desberdinetara bideratuko dute. Era berean, Ibarratik Misio Taldearen arduradunek kontu korronte bat ireki dute merkatutik pasa gabe ere dirua emanaz lagundu nahi dutenentzat; 2101 0043 13 0011656899.

Antxon Iturriza mendizalearen bideoa eskainiko dute etzi, Kultur Etxean

Ibarra » 'Euskal mendizaleatasunaren historia. 2. zatia: Pirinioetatik Everestera' proiektatuko dute.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Kultura eta Gazteria sailak, Kutxa Gizarte Ekintzaren laguntzarekin, Antxon Iturriza mendizalearen *Euskal mendizaleatasunaren historia. 2. zatia: Pirinioetatik Everestera. 1939-1980* ikus-entzunezko lanaren emanaldia antolatu du ostiral honetarako, hilak 19, 19:30ean Kultur Etxean.

1976. urtetik kronikari

Antxon Iturrizak 1976. urtetik egin ditu mendi kronikak eta orduztik euskal mendizaleatasunaren inguruko hiru lan argitaratu ditu; *El descubrimiento de la montaña (1948-1936)*, *De los Pirineos al Himalaya (1939-1980)* eta *Tiempos modernos (1981-2007)*. Liburu hauetan argazki historiko ugari eta xehetasun askoko dokumentazioa bildu du Iturrizak. Ibarran bigarrenaren inguruko ikus-entzunezkoa eskainiko dute.

«Gaur egungo komikiei zerbait falta zaiela iruditzen zait»

JAVIER NAVARRO » Galtzakomik lehiaketako irabazlea

Ibarra » 600 euro eta lanaren argitalpena irabazi ditu tolosarrak; musu-truk egin ohi duen lanarekin lortu du etekina oraingoan.

REBEKA CALVO

Javier Navarro tolosarra izan da Galtzakomik lehiaketako 18 urtetik gorako saileko irabazlea. *Kriantzen problematikak* izeneko komikia aurkeztu zuen, non egunerokotasuneko pasarte bat islatzen duen.

Agureen bikote baten gora beherrak dira nagusi 'Kriantzen problematikak'-en, baina zein da istorioa?

Senarrak, bazkaria egiten ari dela, sagu bat ikusten du eta beldurtuta hankaz gora uzten du sukaldea sagua hiltzeko. Bukaeran emaztea etortzen da eta senarrak dena hankaz gora uzteagatik bronka botako diola uste badu ere, bere ardo botila puskatu duelako bakarrik haserretzen da.

Eguneroko pasarte bat da orduan.



HITZA

Oso istorio arrunta da, batez ere umorea landu nahi nuen. Ez dut ezer berezia esan nahi izan. Komikia ireki eta barre egiteko istorioa kontatu nahi nuen. Nik behintzat, askotan, hori bilatzen dut komikia irekitzerakoan.

Komiki sortzaile eta irakurlea zara, hortaz.

Nik komikia beti dibertimendu bezala hartu izan dut. Aspalditik ez nuela parte hartzen era honetako lehiaketa batean. Baina Galtzakomikeko aukera hau ikusi nuen eta animatu egin nintzen.

Komiki kontsumitzaile moduan, nola ikusten duzu mundu hau?

Nik normalean aspaldiko komikietara jotzen dut, gaur egungoak ez zaizkit horrenbeste interesatzen, ez dakit egungo bizimoduko islada direlako den... zerbait falta zaiela uste dut. Argi dago, hala ere, gauza asko ez ditudala ezagutzen.

Lasai, krisi garaietan sorkuntzak ere bultzada izaten omen du eta.

Mugimendu artistiko berriak normalean gosea pasatzerakoan etortzen dira, asmamena astintzen omen da... Ikusiko dugu.

Ba al duzu beste lanik buruan?

Oraindik ere mamitu beharrekoa, baina badut beste proiektu bat buruan bueltaka.

Hilberria

INMACULADA IRURETA SUDUPE

ANDREA

Atzo hil zen, 78 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

~Goianbego~

Bere senarra: Timoteo Albisu; seme-alabak: Inma eta Xabier, Luis eta Gema, Andoni eta Begoña, Edurne eta Juan; bilobak: Ane, Alex eta Jaione, Paulo eta Maren; anai-arrebak: ezkon anai-arrebak, Ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidak.

Haren animaren alde otzitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, JASOKUNDEKO ANDRE MARIAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



ZUMARRAGA
2008ko
abenduren 17a

Hilbidak: Legazpi kalea 8, 2. ezk. Oharra: Hilbela Santa Isabel Tanatorioan dago.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Retegi Blren aurka ariko da Abel Barriola, Basquepensiones Txapelketan

Leitza » Olaizola II.aren aurka jokatu behar zuen pilotari leitzarrek, baina honek mina hartu du hatz batean.

ERREDAKZIOA

Abel Barriolak Retegi Blren kontra jokatu du Basquepensiones BBK Masters Txapelketako finalaurreko partida. Aimar Olaizola-aren aurka jokatzekoa zen pilotari leitzarra, baina Olaizola II.ak hatz batean hartu duen minarengatik ez du finalaurreko jokatu.

Hain zuzen ere, Goizuetakoak Lau t'erdiko finalean ezker esku-ko bosgarren hatzamarrean jaso zuen lesioa ez zaio sendatu eta osatu. Finalaurreko partida honetan Retegi Blk aurre egingo dio Abel Barriolari, zehazteke dagoen pilotalekuan.

Bestalde, Oinatz Bengoetxea ere txapelketan aritu da baina joan den asteburuan Gonzalezen aurka aritu zen eta galdutako egin zuen leitzarrek, 17 tanto eginda bukatu zelarrik. Ondorioz, Gonzalezek egingo du aurrera txapelketan eta Bengoetxea VI.a lehia ketatik kanpo dagoa.

Barriolak finalerdia jokatzera iritsi da, pasa den igandean Olaizola I.aren kontra jokatu ostean. 22-12 bukatu zen norgehiagoka eta Barriolak aise irabazi zuen, batez ere sakearekin min handia eginez. Partida irabazita ere, Abel Barriolak haserre adierazi zuen honen aurrean, ez baitzuen gustuko materialik aurkitu. Dena dela, finalerdia iritsi da.

Udal finantziarioari buruzko mozioa onartu dute Anoetan

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak udal finantziarioari buruzko mozioa onartu zuen pasa den abenduaren 4ean Udalaren Osoko Bilkuran.

Bertan, bost puntu aipatzen zituzten. Lehenengoan, Anoetako Udalak Gipuzkoako Toki Erakundeek behar duten finantziario justua eta nahikoa exijitzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, horretarako Fofim delakoaren finantziario sistema eguneratzea baino errotik aldatu behar dela aldarrikatzen duelarik.

Bigarren puntuan, Anoetako Udalaren autonomia eta eragiteko esparrua aldarrikatzen du, inoiz baino gehiago «herritarrek pairatzen ari diren krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egiteko udal politika aktiboagoak behar direnean».

Mozioaren hirugarren puntuan, Udalak baieztatu du 2008an Foru Gobernuak bueltatzeko eskatzen dion dirua «ezinezkoa» zaiola bueltatzea, «herritarrei eman beharreko zerbitzuak eta udalerririk behar dituen politikak kolokan jarri gabe».

Laugarren puntuan, berriaz, 2008ko zein 2009rako finantziarioa, gutxienez, 2008ko urtarrean zehazturiko parametroetan mantentzea exijitzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Halaber, Toki Erakundeentzako finantziario lerro berezia sortzea eskatzen dio Foru Gobernuari, «herritarrek bizi duten krisi ekonomikoari aurre egiteko».

Azken puntuan, honen berri emango dutela azaltzen da.



'Petas'-en omenez egun ahaztezina

TOLOSA » Zerkausia elkartsunez bete zen pasa den igandean, Migel Anjel Azkarate Petasen alde. Musikiari tolosarrak duen gaixotasunarentzat tratamendua ordaintzeko laguntza bildu nahian, guztira 800

lagun inguru bat egin zuten bazkarian, eta bederatzitxarangek alaitu zuten jardunaldia. Hauek Plaza Berrian bildu ziren eta Galtzaundi jo zuten elkarrekin. Familiak esker ona luzatu die guztiei. KUSK

Musika Eskolako Gabonetako kontzertua, gaur entzungai

Tolosa » 19:00etatik aurrera izango da Eduardo Moco-roa musika eskolan bertan; bertaratzeko deialdia egin dute.



Musika eskolako ikasleek gogor prestatu dute gaurko kontzertua. HITZA

ERREDAKZIOA

Gabonetako lehen doinuak zabalduko dituzte gaur Eduardo Moco-roa Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko baitute, 19:00etatik aurrera Musika Eskolan bertan.

Eskolatik deialdia egin dute bertaratzeko. Ikasleek gogor prestatu dute kontzertua eta egitarau zabal antolatutako dute.

Besteak beste, biolontxelo, pianoa, klarineta, biola, saxofoia, akordeoia, perkusioa, oboea, adar

ingelesa, zeharkako xirula edota bibolinarekin osatutako piezak joko dituzte ikasleek. Patxi San Sebastianen zuzendaritzapean ariko dira ikasleak. Euskal doinuak ere joko dituzte. Arantxi eta Jon Padilla, Etxebeste, Rodriguez, Elizegi, Laso, Arrillaga, Lakunza, Lopez,

Zabala, Iturrall, Estivariz, Ezkerro, Iglesias, Osinaga, Lopez de Murillas, Jauregi, Sukia, Iriondo, Lizaso, Nausia, Hilaria, Mintegia, Tolosa, Zaragueta, Navarro, Izagiri, Gangoitia eta Amaia, Maite eta Ane Elizegi musikariek hartuko dute parte.

B Blogteka info

Ikastolako urteko batzarra

Urte sasoi honetan ohi bezala, Ikastolaren bizitzan oso garrantzitsua den ekintza hau gauzatzea goaz: Urteko Ohiko Batzarra bu- rutuko dugu. Batzar hau abendu-aren 17an, asteazkenarekin, izango da eta Usabalen egingo dugu arratsaldeko 19:30ean hirugarren deialdian. (lehen deialdia 18:00etan eta bigarrena 18:30ean)

Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:

- 1.-Aurreko urteko aktaren berri jaso.
- 2.-Balantzea eta Aurrekontua. Kuotak.
- 3.-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.
- 4.-Partaide berriak Juntan.
- 5.-Akta onartzeko bi kide izendatzea.

6.-Galdeta eta eskeak
Esan bezala oso gustukoa izan- gogenuke gure artean izango bazi- na egun horretan ekintza garrant- zitsu hau burutzean.

Laskorain ikastola


<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/laskorain>

Euskal produktuen katalogoa

Gizarte kontsumitzaile honetan kontsumo eritritik ihes egitea zaila da eta sailtu behar gara, baina gai- nera euskaldunok gure hizkun- tzan dauden produktuak lehenes- tu beharko genituzke. Hirukiden euskarazko produktuen katalogoa aztertzea gomendatzen dugu, ani- ma zaitzete!

Hirukide ikastetxea

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/hirukide>



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK PRESTAZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ARAMBURU

Alokatzeko (Tolosa).
Etxeak. Allirin eta Larramendin.
Alokatzeko (Anoeta). Etxea.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak, San Frantziskotik, Araba etorbidean, Larramendin eta Batxiller Zaldibian, erosteko aukerarekin.
Salgai (Tolosa). Etxebizitzak.
Kale Nagusian, Araba etorbidean, Batxiller Zaldibian eta Martin Jose Iraola kalean.
Salgai (Legorreta eta Iruran). Etxebizitza eraberritzeko, Legorretan 32.000.000 pzta eta Iruran 20.000.000 pzta.
Salgai (Irura). Etxebizitza sartzeko moduan. Eskaintza ona.
Salgai. Garaje itxiak eta irekiak.
Amarotzen (Tolosa) eta Ibarra.

943 65 17 13 / 677 46 09 16



12°
6°

GOIZA: EURIA
ARRATS: EURIA
BEROENA: 11°
HOTZENA: 6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialea: 687 410 034. alegialea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalea: 687 410 118. leitzalea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Berastegi.** Bigarren eskuko materialen azoka Eskola Agenda 21 dela eta, Erretoretzeko lehen solairuan 16:30etik 18:00etara astegurnetan eta asteburuen berriz goizez, 11:30etatik 13:30etara.
- **Ibarra.** Ibarrik Misio taldeak antolatutako Merkatu Txiki Misio-laria Ekuador, India eta Honduraren aldeko izango da aurten. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik Parrokiako lokaletan.
- **Tolosa.** Jai Batzordearen bilera izango da 19:00etan Kultur Etxean. Gaia: Inauteriak.
- **Tolosa.** Laskorain Ikastolaren bere Urteko Ohiko Batzara egingo, 19:30ean izango da Usabalgo Areto Nagusian. Ikastolako kideek elkarrekin aztertuko dituzte urteko gertakizunak eta datorren urterako asmoak zehaztu. Horburutuko da, era berean, Artezkaritza Kontseiluko kide berriak izango diren izendapena.
- **Tolosa.** Laskorain Ikastolako In-diaiko proiektu baten alde eta Sa-harara material didaktikoa eramateko antolatu duen Merkatu Txiki-rako gauzak (jostailuak, liburuak, arropa...) eraman daitezke Erre-tingibelen bulegora 18:00etatik 19:00etara edo ikastolako bulego-etara.
- **Tolosa.** Udalak herriko silo bolen plastiko guztien bilketa puntua, Artatxu baserriaren ondoan finkatu dauka eta gaur bertara eramane beharko dira bolak lotuta, haizeak bola hauek altza ez ditzan.
- **Tolosa.** Tolosaldea Garatzenen Inmigratio Sailak literatur lehiaketan antolatu du *Emakumeen kontrabuzioa migratio prozesuetan* gaiari buruz, euskaraz eta gaztelaniaz, 16 urtetik beherakoentzat eta gora-koentzat. Lanak Tolosaldea Gara-zenen (San Estebango lokalean, Tolosa) entregatu beharko dira.
- **Zizurkil.** Leire Zubeldiak idatzitako *Atxulondoko azken olagizona* kontatuko du Virginia Imazek libu-rutegian 18:00etan.

Hitzaldia

- **Tolosa.** *Erleak eta erlauntza* hitzaldia emango du Luis Mari Intzak, 16:00etan, Helduen Hezkuntzaren egoitzan (Igaralde kalea, 23).

Kirola

- **Ibarra.** Kirol Astea: gaur, 17:30ean eskalada ikastaroa 10 ur-

retik gorako gaztetxoei zuzenduta kiroldegian. Biharkoan, 17:30ean Ibarra Racingeko Koldo Alonso-ren, Marcos Landaren eta Jon Maritxalaren dardo materialaren erakusketa, Ibarako plazan bertan. Etzi, 17:30ean eskalada ikastaroa 10 urtetik gorako gaztetxoentzat kiroldegian eta 19:30ean *Pirineoetatik Himalayara 1939-1980* dokumentala aurkeztuko du Antxon Iturrizak Benito Izagirre kultur etxean.

- **Tolosa.** Ordizia-Mantxinbenta lau orduko mendi ibilaldia antolatu du Alpino Uzturre elkarteak abenduaren 21erako, igandearekin. Murumendi (859 m) eta Txarabeltz (692 m) mendiak igoko dituzte. Urteko azkena denez, babarrun-jatea ere izango da ondoren, Añota sagardotegian. Izen-ematea, elkartearen bertan daiteke (943 652789).
- **Villabona.** Irumugarrieta (1.427 metro) mendira irteera antolatu du Aizkardi elkarteak hilaren 21erako. Izen-ematea, elkartearen bertan.

Zinema

- **Alegia.** Zine-klub saioa Gaztetxean 21:30a aldera, XXI. Urtemugan.

Erakusketak

- **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarrak buztin egosian egindako lanak ditu ikusgai Lanbroa tabernan.
- **Tolosa.** Xabier Salazarren beira lanen erakusketak Fronton kafetegian.
- **Tolosa.** Dauri Alcalá margolari dominikarraren margolanen erakusketak ikusgai, Ereite elkarteak antolatuta, Etorkinaren Egunaren harira antolatutako ekitaldien baitan.

Musika

- **Tolosa.** Zura eta Sorene Leone (Zurich) musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30etik aurrera.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Iruizun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan

Mikel (Alegia). Gaur 8 urte. Muxu asko familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

